

Euskadiko gazteen erdiek baino gehiagok uste dute euren egoerak hobera egingo duela datozen bost urteetan


Gazteak baikorragoak dira 30 urtekoak eta adin horretatik gorakoak baino

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 56k uste dute euren egoera pertsonalak hobera egingo duela datozen bost urteetan; % 26k uste dute berdin jarraituko duela eta % 13k, ordea, okerrera egingo duela. Gainerako % 5ek ez diote galderari erantzun, edo ez dute jakin zer erantzun.

Norberaren egoerak bost urtetan izango duen bilakaerari dagokionez, baikorragoak dira gazteak 30 urtekoak eta nagusiagoak baino: 15 eta 29 urte bitartekoen % 56ren ustez, norberaren egoerak hobera egingo du; 29 urtetik gorakoen artean, gauza bera diotenak ez dira laurdenera heltzen: % 23 dira.


Norberaren egoerak hemendik bost urtetara izango duen bilakaeraren aurreikuspena. Gazteen eta 29 urtetik gorakoen arteko alderaketa (%)

Kanpoko zirkulua: 15-29 urtekoak
Barruko zirkulua: 29 urtetik gorakoak



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Norberaren egoerak datozen bost urtetan hobera egingo duela gehien uste dutenak (% 65) langabezian dauden gazteak dira.



Langabeen aurreikuspen positiboagoek, dirudenez, badute harremanik enpleguaren inguruko aurreikuspenekin. Hain zuzen ere, langabezian dauden gazteen erdiek baino gehiagok (% 54) diote urtebeteko epean enplegua aurkituko dutela seguruenik edo nahiko seguru. Erdiak baino gutxiago (% 46) dira, ordea, ikasketak amaitu eta seguruenik edo nahiko seguru ikasketei lotutako enplegua aurkituko dutela uste dutenak. Era berean, okupaturako gazteen artean, urtebeteko epean enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskurik ikusten ez dutenak erdiak baino gutxiago dira (% 43).

Datuok Gazteen Euskal Behatokiak eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak elkarlanean egindako [Aurrera Begira / Mirando al futuro](#), azterlanetik atera dira. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 urteko eta hortik gorakoekin lagin adierazgarriari egindako inkesta telefonikoa da azterlanaren abiapuntua (inkestatutako gazteen kopurua: 1516; inkestatutako 30 urtekoen eta hortik gorakoekin kopurua: 943). Inkestak 2013ko azaro-abenduan egin ziren, eta azterlana 2014ko otsailan plazaratu da.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

